



Andoni, Jon Luqui eta Jabier Baraiazarra ekitaldiari hasiera ematen • ARGAZKIA: ARITZ ORMAZABAL - GATTIKEN

XABIER ORMAZABAL MENDI-FESTA

Ioritz Gonzalez Lertxundi

Joan den udaberrian, *Xabier Ormazabal mendi-festa* ospatu zen Urretxun, maiatzaren 30ean. Ekitaldia urtero egin ohi da, eta bi urtetik behin mendizale belaunaldi berriei laguntzeko beka bat eskaini ohi da. Aurtun, berrikuntzak izan dira: Irizar, WOP-The Walk On Project fundazioa eta Mendi Film babesle moduan gehitu dira, azken biak bekaren sustatzaile moduan, Urretxuko Udalarekin bat eginez.

Bekaren helburua, Xabierren oroimena bizirik mantentzea eredu gisa eta mendizale gazteei mendizaleen baloreak transmititu eta laguntzea da. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izan da, eta badirudi urtetik urtera mendiko ekitaldi sonatuen artean izena hartzen ari dela.

GOI-MAILAKO EGITARAUA

Festari hasiera emateko, maiatzaren 29an Sebastian Alvarok *Mis montañas* liburua aurkeztu zuen. Liburua aurkezteaz gain, hizketaldia izan zuen bertaratu zirenekin. Mendizalea erreferentzia bat da estatu mailan, eta ikus-entzunezkoen ar-

loan eta dibulgazioan ere esperientzia handia du. Azpimarratzekoa da *Al filo de lo imposible* dokumental sailaren zuzendaria izan zela hogeita hamar urtez. Ikusleek agertu zuten, Alvaroren solasaldia interesgarria izan zen oso.

Mendi-festak maiatzaren 30ean jarraitu zuen. Zenbait proiektio eta solasaldi ikusteko aukera izan zen, Andoni Ormazabalen gidaritzapean. Andonik ohi duen moduan, giro berezia sortu zuen ekitaldiko protagonistekiko eta ikusleekiko gertutasuna eta estimua adieraziz; jendea hunkitzeko duen berezko trebezia agerian geratu zen beste behin ere.

Ekitaldiari hasiera *Elbereth* taldeak eman zion. Talde legazpia-rrak zenbait kantu jo zituen, eta Xabierren omenez sorturiko kanta jo zutenean zirrara berezia sortu zen entzuleengan. Jarraian, Andoni, Jon Luqui (Urretxuko alkatea) eta Jabier Baraiazarra (Mendi Film Festibaleko zuzendaria) igo ziren oholtzara. Mendi-Festaren helburu eta baloreei buruz jardun zuten, ekitaldiaren oinarri den mendiko baloreen transmisioa goraipatuz. Mikel Renteriaren bideo bat ere izan zen ikusgai (*Walk on Project*-eko zuzendaria), azken honek ezin izan baitzuen festara etorri.

Ondoren, Ainhoa Unanue zumarragarraren proiektzioa izan zen ikusgai. Ainhoak joan den urteko bekaren dirulaguntzarekin eginiko jarduera aurkeztu zuen: bizikletaz Alaskan zehar bertako lagun batekin eginiko bidaia, hango mendietako paraje zoragarrietan eski-zeharkaldia eginez.

Ainhoaren aurkezpena amaitu ostean, Ormazabal Aristegi familiak prestaturiko mokadutxoaz goatzeko parada izan zen. Eskertzekoa benetan egin zuten lana, bereziki Korok (Andoni-ren ama) prestaturiko janaria. Tarte polita izan zen, mendiza-leek elkarrekin egoteko tartetxoa ederki aprobetxatu zuten.

Proiektzioekin jarraituz, Ainhize Belar eskalatzaile gaztearen txanda izan zen. Ainhizek azken hilabeteetan Baltzolan erdie-tsitako mundu mailako balentriei buruzko ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen; *"Il domani (9a)"* eta *"Iñi ameriketara (9a+)"* bi-deak eskalatzean izan zituen bizipenen inguruko bideoa.

Jabier Baraizarra: "Mundu osoan ez dago familia honek antolatu duena bezalako ekitaldirik"

Azken proiektzioa Janire Etxaberen eskutik etorri zen, Dantza Bertikala oinarri duen *"Haize Ierroak"* filma. Azken hau Janirek azken urteetan buru-belarri diharduen proiektuaren ikus-entzunezko emaitza zoragarri bezain berritzailea da. Irudi eta hitz zoragarriak josiriko proiektzioa da, ikusleak hunkiturik utzi zituena.

Behin proiektzioak amaiturik, Jordi Corominas alpinista eza-gunaren solasaldia izan zen, Oscar Gogorza mendi kazetariaren laguntzaz. Bikote ederra osatu zuten, ikusleen gozamenarako. Mendian Jordik dituen balore eta etikaren inguruan jardun ziren, eta umore kutsuak solasaldiari ukitu berezia eman zion, ideiak argi dituela agerian geratu zen arren.

Amaitzeko, Mikel Zabalzaren liburuaren aurkezpena egin zen, eta aprobetxatuz ondo merezia duen omenalditxoa egin



Ainhoa Unanue eta Andoni Ormazabal bidaiaren proiektzioa aurkezten - ARGAZKIA: ARITZ ORMAZABAL - GATTIKEN

ondoren, opari bat egin zitzaion: Eli Azurmendik eginiko "Malen" bidearen krokisa, Teleran Mikelek, Unai Mendiak eta María Alcinak zabalduriko bidea; Malen izenaz bataiatua, Andoniren alabari erreferentzia eginez.

Mendi-Festan izan zen giroa azaltzeko, Jabier Baraiazarrak adieraziriko hitzei helduko diet, bizitako uneen adierazgarri izan daitezkeelakoan: "Mundu osoan ez dago familia honek antolatu duena bezalako ekitaldirik".

Sebastian Alvaro hitzaldia ematen - ARGAZKIA: ARITZ ORMAZABAL - GATTIKEN

